

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 38/2019, FORU DEKRETUA, apirilaren 9koa, 2019ko ekitaldian, Artisautza Sustatzeko Programaren oinarri arautzaileak eta lehenengo deialdia onartzen dituena.

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren ardatz estrategikoak hauek dira: enpresa berriak sustatzea, enpresa txiki eta ertainei bultzaberritzea, gazteen enplegua indartzea eta autonomoentzako babesa eskaintzea, eta azpiegiturak eta industria turistikoa bultzatzea.

Bizkaiko Foru Aldundiak, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren bitartez, Bizkaiko artisautzaren sektorea dinamizatu eta bultzaberritzeko programa bat aurkeztu du.

Programa hori ez da jarduera bakartu bat, ezpada Bizkaiko Lurralde Historikoko ekonomia-sustapenaren eta berrikuntzaren arloko politikaren esparruan kokatutako jarduera.

Bizkaiko Lurralde Historikoko foru erakundeen hautapen, antolaketa, araubide eta jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k artikulua dio foru diputatuei dagokiela Foru Aldundiari proposatzea sail bakoitzaren berezko gaietako foru dekretuen proiektuak, berak onets ditzan.

Hortaz, 2019ko ekitaldiari dagokionez, artisautza-sektorea sustatzeko laguntzen araudia eman behar da; hau da, laguntzen oinarri arautzaileei eta aurtengo lehenengo deialdiari dagokiena.

Foru dekretu honetan, genero-ikuspegia jasotzen da, bai hura prestatzeko orduan bai haren aplikazioan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoarekin bat. Gainera, kontuan hartu da Bizkaiko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Planeari (2016-2019) eta Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuari xedatutakoa. Izan ere, dekretu horren bidez, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen dira; ebaluazio hori Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean dago aurrez ikusita.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua onetsita, foru dekretu hau egitean kontuan hartu da foru arau horretan ezarritakoa.

Horrez gainera, dekretu honen garapenean gizarte-neurriak ezarri dira, Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 27ko 16/2018 Foru Dekretuari ezarritakoa kontuan hartuta. Foru dekretu horren bidez, batetik, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onartutako Diru-laguntzen Erregelamendua aldatzen da, Foru Administrazioak emaniko diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duena; eta, bestetik, Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntzetarako prozeduretan klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko gida onartzen da.

Foru Dekretu hau Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarri diren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren izaera orokorreko xedapenak prestatzeko prozedura arautzen duen 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jaso diren erregulazio onaren printzipioak betetz jaulki da.

Hori dela bide, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko foru diputatuak proposatu eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2019ko apirilaren 9ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau.



XEDATU DA:

I. TITULUA

DEKRETUAREN XEDEA**1. artikulua. — Dekretuaren xedea**

Dekretu honen xedea Bizkaiko Foru Aldundiak artisautzaren sektorea dinamizatu eta dinamizatzeko eman beharreko laguntzak ezarri eta arautzea da.

Hala, dekretu honetan ezarritako neurrien bitartez, honako helburu hauek lortu nahi dira:

- Bizkaiko artisautza zabaldu eta ezagutarazteko aukerak eskaintzea.
- Artisautza-enpresak eta haien produktuak sustatzea.
- Artisautza-enpresen sorkuntza bultzatzea.
- Artisauen trebakuntza-maila hobetzea.
- Enpresen elkartegintza bultzatzea.

Helburu horiek guztiak gauzatzeko prozesuan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea sartuko da, helburu guztien zeharkako arlo gisa eta berdintasuna bera ere helburu dela, eta sustatuko da sexuen arabera rolak ezabatzea.

Artisautza Sustatzeko Programa bi jarduera-arlo hauen bitartez gauzatuko da:

- 1. arloa: artisautza-enpresek eginiko jarduketak.
- 2. arloa: toki-erakundeek eta artisautza-elkarteek bultzaturiko jarduketak.

II. TITULUA

JARDUKETA-ARLOAK

I. KAPITULUA

1. ARLOA, ARTISAUTZA-ENPRESEK EGINIKO JARDUKETAK**2. artikulua. — Helburuak**

Arlo honen bitartez, egun dauden artisautza-enpresen lehiakortasuna eta garapena bultzatzearen alde egiten da, bai eta gure Lurraldean enpresa berriak sustatzearen alde ere.

3. artikulua. — Entitate onuradunak

Foru dekretu honetako 1. arloan adierazitako diru-laguntzak jaso ahal izango dituzte nortasun juridikoa duten artisautza-enpresek eta norbanako artisauek edo ondasun-erki-degoetan eratutakoek. Horretarako, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Zerga-egoitza eta sozietate-egoitza Bizkaian izatea.
- b) Ekoizpen-gunea Bizkaiko Lurralde Historikoan kokaturik egotea.
- c) Bizkaiko Lurralde Historikoko Artisautzako Entitateen Erregistroan inskribatuta egotea, eta inskripzioa, gutxienez, deialdi hau argitaratu baino zortzi hilabete lehengo egin behar izan dute, salbu eta lehen aldiz erregistratu diren enpresek, berauentzat epe hori igaro ez bada ere.
- d) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan eurei dagokien epigrafean alta emanda egotea, betiere Bizkaiko Artisauen Erregistroan alta emandako jarduerarekin zerikusia duen artisautza-jardueran.
- e) Sexuaren ziozko bereizkeria dela eta, inoiz zehapenik jaso gabe egotea.
- f) Ez egotea Diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren 12. artikulua ezartzen dituen inguruabarretako baten ere.
- g) Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan beteta izatea, baita diru-laguntzak itzultzeagatik betebeharretan ere ordainketak egunean edukitzea.

**4. artikulua. — Diru-laguntza jaso dezakeen egitatea**

Hurrengo egitateok dira diru-laguntza hauek jaso ditzaketenak:

- a) Artisautza-lantegiak ezarri, zabaldu edo eraldatzea.
- b) Makineria, tresneria eta informatikako ekipamendua.
- c) Prestakuntza ikastaroetan parte hartzea.
- d) Artisautza jarduerara bati buruzko web orri bat egin eta eguneratzea, sare soziale-tan parte hartzea barne.
- e) Merkataritza sustapeneko materialak prestatzea.
- f) Azoketan parte hartzea.
- g) Enpresaren kudeaketa edota bideragarritasuna hobetzeko kanpoko aholkularitza.
- h) Artisautza-lantegia alokatzea.

Diruz laguntzekoak diren egintza horiek garatzeko prozesuan, emakumeen eta gizo-nen arteko berdintasuna sustatzea sartuko da, helburu guztien zeharkako arlo gisa eta berdintasuna bera ere helburu dela. Hori gauzatzeko aukerak izango dira: parte-hartze paritarioa sustatzea, azoketan eta beste ekintza batzuetan genero ikuspuntua ezartzea, hizkuntza eta irudiak modu ez-sexista batean erabiltzea, eta abar.

5. artikulua. — Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak

1. Diru-laguntza jaso dezakeen jardueraren oinarria zenbatzeko orduan, enpresa eskatzaileak aurkeztu duen jardueraren aurrekontuari begiratuko zaio —gastu-kontzep-tuen arabera zehaztuta.

Kasu guztietan, jarduketara behar beste justifikatuta egon beharko da, eta beharrezkoa eta koherentea izango da, enpresaren artisautza-jardueraren garapenari dagokionez, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren aburuz.

Gastuek eta inbertsioek diru-laguntza jasotzeko aukera izango dute, baldin eta horiek guztiok sortu badira foru dekretu honen 6. artikuluan aipatutako daten artean eta 2020ko otsailaren 28a baino lehen ordaindu badira.

2. Bereziki, honako gastu hauek dira diru-laguntzak jaso ditzaketenak:

- a) *Artisautza-lantegien ezarketa, zabalkuntza edo eraldaketa:*

Lokala artisautza-jarduerara garatzeko egokitzeko obrak egiteko kostua.

Diru-laguntza jasotzeko aukera izateko, eduki behar dira lokal horri dagokion jar-duera egiten hasteko aurretiazko komunikazioa, obren aurretiazko komunikazioa edo, hala badagokio, obra lizentzia, eta, era berean, enpresaren aktiboan egon beharko da, diru-laguntza eman den egunetik gutxienez bi urteko epean.

Diru-laguntzaren xedetzat hartuko dira produktibitatea, segurtasuna eta inguru-men-baldintzak hobetzeko egokitzapen-lanak Erreformatik egiten diren lokalak tailerra eta etxebizitza edo saltokia badira, edo onuraren bat dakarten ikastaroak emateko erabiltzen badira, tailerraren metro karratuen kopuruari dagokion por-tzentajearen arabera onartuko da gastua.

Diru-laguntza jasotzeko aukera izateko, enpresak kontzeptu honengatik diru-la-guntza jaso badu hiru urte baino gutxiagoko epean, Ekonomi eta Lurralde Gara-pena Sustatzeko Sailaren aburuz nahikoa arrazoi egon beharko da lokala alda-tzeko edota eraldatzeko.

- b) *Makineria, tresneria eta informatikako ekipamendua:*

- b.1) Makineria eta tresneria eskuratzeko kostua:

Diru-laguntza jasotzeko aukera izateko, lanabes guztiok artisautza-jar-duerari ematen dioten balio erantsia justifikatu beharko du enpresak. Era berean, enpresaren aktiboan egon beharko dira, diru-laguntza eman den egunetik gutxienez bi urteko epean.



- b.2) Informatikako ekipamendua eskuratzeko kostua:
- Diru-laguntza jasotzeko aukera izateko, ekipamendu horrek artisautza-jarduerari ematen dion balio erantsia justifikatu beharko du enpresak. Era berean, enpresaren aktiboan egon beharko da, diru-laguntza eman den egunetik gutxienez bi urteko epean. Horretarako, produktua erosteko fakturan agertzen den egunaren hurrengoan hasiko da epea zenbatzen.
- Hiru urterik behin ordenagailu bat erostea bakarrik lagunduko da diruz.
- c) *Prestakuntza ikastaroetan matrikulatzeko kostuak, ikastaro horiek zuzeneko eragina badute enpresaren eta haren langileen artisautza-jardueraren hobekuntzan:*
- Diru-laguntza jasotzeko aukera izateko, ikastaro horiek eragina izan behar dute enpresa-jardueraren hobekuntzan behar bezala justifikatuta; ikastaroon barruan sartzen dira tresna teknologikoen erabilera merkataritzan sustatzekoak, ohiko baliabideen zein sare sozialen bidez, bai eta antzeko gaiak dituzten ikastaroak ere.
- d) *Artisautza-jarduerari buruzko web orria eta sustapenerako beste material batzuk egiteko eta eguneratzeko kostua, barruan sartzen dela sare sozialetan parte hartzea:*
- Diru-laguntza jasotzeko aukera izateko, Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa eduki beharko dute ondo ikusteko moduko leku baten.
- Gainera, kontuan hartuko da, nahitaez, bi hizkuntza ofizialen erabilera orekatua. Kontzeptu honetan kontuan hartuko da hizkera ez-sexista erabiltzea.
- e) *Sustapen-materiala egiteko kostua:*
- Diru-laguntza jasotzeko aukera izateko, materialek Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa jarri beharko dute, erraz ikusteko leku batean.
- Gainera, bi hizkuntza ofizialen erabilera orekatua eta hizkera ez sexistaren erabilera hartu beharko da kontuan.
- f) *Azoketan parte hartzeko lurzorua eta standaren alokairua:*
- Diru-laguntza jasotzeko aukera izateko, beharrezkoa izango da azokak Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo egitea, gutxienez bi egun irautea, edota BECeko egutegi ofizialaren barruan egotea, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak berak antolatutako azokak direnean izan ezik. Gainera, Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa ondo ikusteko moduko leku baten jarri behar da.
- Gainera, diru laguntza jasotzeko, azokaren xede nagusia artisautza izan behar da.
- g) *Enpresaren kudeaketa edota bideragarritasuna hobetzeko kanpoko aholkularitza:*
- Diru-laguntza jasotzeko aukera izateko, enpresaren kudeaketa eta/edo bideragarritasuna hobetzeko jardura edo lan jakin bat izan behar da eta ez du loturarik izan behar enpresaren jardueraren berezko jarduketekin: kontabilitatea, Administrazioarekiko izapideak...
- h) *Lantegia lonja edo lokal baten instalatzeko alokairuko gastuak:*
- Paragrafo honen barruko gastuak izango dira garajearen alokairuaren lehenengo bi urteetako errentak; urteok zenbatuko dira inskripzioa Bizkaiko Artisanatzako Erakundearen Erregistroan egiten denetik. Gastu hauek diru-laguntza jaso dezakete aurtengo edo 2018an lehenengo aldiz inskribatu diren enpresentzat.
- Bizkaiko Artisanatzako Erakundearen Erregistroan 2018. urtea baino lehen inskribatuta dauden enpresen kasuan, tailer baten lehenengo urteko alokairuaren ondoriozko gastuak diruz laguntzeko gastutzat joko dira, erakundea lokal berri batera aldatu bada, lehenago erabilitako lokalak tailer gisa erabiltzeko baldintzak teknikoak edo edukierari dagozkionak betetzeari utzi diolako.
- Diru-laguntza jasotzeko aukera izateko, lokalak eskrituran agertu behar du beste higiezinetatik bakartu eta bereizitako ondasun lege, eta haren xedea ezin izango da etxebizitza-erabilera izan. Salbuespena izango da lokal handiago baten zati bat alokatzen bada eta bertan egiten diren jardueren multzoak artisautza-izaera badu.



3. Hurrengo gastuok, berriz, ezin izango dituzte diru-laguntza hauek jaso:
- Garraio-gastuak
 - Materiala postontzietara sartzeko lanak eta erakusleihoetako apaingarriak.
 - Altzariak.
 - Argazki-kamerak eta telefonia mugikorreko gailuak erostea
 - Dekretu honek diruz lagunduta antolatzen diren prestakuntza ikastaroetara joatea.
 - Komunikabideetan publizitatea jartzea.
 - «Hosting» edo web-ostatatzea.
 - Informatikako softwarea.
 - Leasinga, behin haren jatorrizko urteko deialdian jasota egon eta diruz lagun daitekeen baliorik handiena lortutakoan.
 - Finantza-gastuak.
 - BEZa.
 - Enpresa eskatzaileari lotutako enpresa edota pertsonen bidez egindako gastuak.
 - Enbalaje gastuak.
 - Diru-laguntzaren xedeko jarduerarekin inolako zalantzarik gabe identifika ezin daitezkeen gastuak edota deialdi bakoitzean ezarritako epearen barruan egin ez diren gastu guztiak.

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak baderitzo gastu-aurrekontua gehiegizkoa dela antzeko izaerako gastuen batez besteko kostuarekin alderatuz gero, orduan diruz lagun daitekeen oinarria murriztu dezake Sailak, bere ustez doitua eta neurrikoa den gastuari dagokion zenbatekoan.

6. artikulua. — *Jarduerak egiteko epeak*

Dekretu honen 1. arloaren babesean artisautza-enpresek garatuko dituzten jarduerak honako taula honetan adierazitako datetan hasi eta amaitu beharko dira.

Diru-laguntzak jaso ditzaketen jarduerak Hechos subvencionables	Egiteko epea Plazo de ejecución
Artisautza-lantegien ezarketa, zabalkuntza edo eraldaketa Implantación, ampliación o reforma de talleres artesanos	01/01/2019-31/12/2019
Makineria, tresneria eta informatikako ekipamendua Maquinaria, utillaje y equipamiento informático	01/01/2019-31/12/2019
Prestakuntza-ikastaroetako matrikula Matrícula en cursos de formación	14/05/2018-31/12/2019
Web orria eta beste sustapen-material batzuk egin eta eguneratzea, sare sozialetako parte-hartzea barne Elaboración y actualización de la página web y otros materiales promocionales, incluyendo participación en redes sociales	01/01/2019-31/12/2019
Azoketan parte hartzeko lurzorua eta standa alokatzea Alquiler de suelo y stand derivado de la participación en ferias	14/05/2018-31/12/2019
Kanpoko aholkularitzaren kontratazioa, enpresaren kudeaketa edota bideragarritasuna hobekuntza ahalbidetzeko. Consultoría externa para la mejora de la gestión y/o la viabilidad de la empresa	01/01/2019-31/12/2019

Froga-balio baliokidea duten faktura edota dokumentuen datak izan beharko du jarduerak egiteko ezarritako tarte beretakoa, hau da, artikulua honetan ezarritako tarteetan jarri beharko zaie data.

**7. artikulua. — Laguntzen zenbatekoa**

Diru-laguntza zehazteko, betiere dekretu honen 1. arloaren arabera artisautza-enpresek egiten dituzten eskabideei dagokiena, kontuan hartu beharko dira diru-laguntzaren gehieneko portzentajeak eta artikulua honetan ezartzen diren gehieneko muga absolutuak.

Jarduketa Actuación	Diru-laguntzaren gehieneko %-a % máximo de subvención	Gehieneko erabateko diru-laguntza (eurotan) Subvención máxima a recibir por hecho subvencionable (euros)
a) Artisautza-lantegiak ezartzea, zabaltzea edo eraldatzea Implantación, ampliación o reforma de talleres artesanos	50	5.000
b) Makineria, lanabesak edota tresna informatiko berriak eskuratzeko kostua Coste de adquisición de maquinaria, utillaje y/o equipamiento informático nuevo	50	9.000
Makineria, lanabesak edota tresna informatiko erabiliak eskuratzeko kostua Coste de adquisición de maquinaria, utillaje y/o equipamiento informático usado	25	
c) Prestakuntza osagarriko ikastaroetan parte hartzea Participación en cursos de formación complementaria		
Matrikularen kostua Coste de matrícula	90	1.200
d) Enpresaren web orria egiteko eta eguneratzeko kostua Coste de elaboración y actualización de la página web de la empresa, incluyendo participación en redes sociales	50	2.500
e) Merkataritzako sustapen-materialak egiteko kostua, baldin eta Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak beharrezkotzat jotzen baditu Coste de elaboración de materiales de promoción comercial que se estimen necesarios a juicio del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial	50	500
f) Azoketan parte hartzea Participación en ferias		
Lurzorua eta standa alokatzeak Coste de alquiler de suelo y stand	90	2.500
g) Kanpoko aholkularitza kontratatzea Contratación de consultoría externa		
Kontratazio-kostua Coste de la contratación	50	5.000
h) Artisautza-lantegia alokatzea Alquiler de taller artesano		
Lantegia lonja edo lokal baten jartzeko alokairuko gastuak Gastos de alquiler por la instalación de sus talleres en lonja o local	50	6.000

Arlo honetako gehieneko diru-laguntza 10. 000 eurokoa izango da entitate onuradun eta deialdi bakoitzeko.

Diru-laguntzaren portzentajea zehazteko, kontuan hartuko da balorazio-irizpideetan lortu den puntuazioa; horrela, diru-laguntzaren portzentajea eta balorazio-irizpideetan lortutako puntuazioa proportzionalak izango dira.

Urte anitzeko aurrekontua badago, jarduketa noiz egiten den alde batera utzita, laguntza bi aurrekontu-ekitaldiren kontura adjudikatu ahal izango da.



Diru-laguntzaren portzentajea zehazterako orduan, kontuan hartuko da, ahal den neurrian, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren sustapena. Beraz, beste alderdi batzuen artean, kontuan hartu beharko dira parte-hartze paritarioa sustatzea, hizkuntza eta irudiak modu ez-sexistan erabiltzea, genero-ikuspegia ezartzea...

8. artikulua. — Diru-laguntzak metatzea.

Dekretu honetan jasotako diru-laguntzek, 1. Arlokoek, Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduan xedatutakoa bete beharko dute. Erregelamendu hori EB Funtzionamendu Ituneko 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da (EBAO 352. zenbakia, 2013ko abenduaren 24koa). Beraz, arautegi hori ez betetzeak erantzukizun penala, zibila eta administratiboa ekar diezaiolke enpresa arau-hausleari. Europar Batasunak ezarritakoaren arabera, edozein enpresari emandako minimis laguntza, guztira, ez da 200.000 euro baino handiagoa izango hiru zerga-ekitalditan.

9. artikulua. — Emateko prozedura

Diru-laguntzak emateko prozedura izango da norgehiagokaren araubidekoa, dekretu honetako 31. eta hurrengo artikuluen arabera.

10. artikulua. — Balorazio-irizpideak

1. Arloari dagozkion diru-laguntzak emango zaizkie eskabideei, baldin eta baloraziorik onena jaso badute onuradun izateko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten enpresen artetik. Horretarako, honako irizpide hauek erabiliko dira:

1) *Enpresaren lehiakortasuna hobetzea:*

Irizpide hau ebaluatzeko, honako hauek egiteko aukera ematen duten jarduketak hartuko dira kontuan: produktuan berrikuntzak ezartzea, beste produktuetatik bereiztea, kalitatea handitzea, enpresen kudeaketan hobekuntzak sartzea, IKTak erabiltzea, irudia, marka, komunikazioa eta bezeroentzako arreta hobetzea, merkatuak hedatzea, Bizkaiko artisautza beste merkatu batzuetara zabaltzea...

2) *Enpresaren konpromisoa, artisautza-jarduerari eustearikoa:*

Irizpide hau ebaluatzeko, honakoak hartuko dira kontuan: enpresa berriak mar txan jartzea, zaletasun berriak sustatzea, galtzeko arriskua duten edo ordezkapen urria duten artisautza-jarduerari eustea, jardunean lortutako esperientzia-urteak, etengabeko prestakuntza ematea...

3) *Entitateak ingurumenarekiko duen konpromisoa, proposatutako jarduerak ingurumenean duen eragin positiboa eta entitateak berdintasuna sustatzeko duen konpromisoa:*

Irizpide hau ebaluatzeko, honakoak hartuko dira kontuan: entitate eskatzaileak egiaztatu dituen eta indarrean dauden ingurumen-ziurtagiriak, aurreikusitako jarduerak ingurumenean duen eragin positiboa, eta horretarako eskumena duen entitate publikoak emandako gainerako aitorten eta diplomak.

4) *Proiektuaren eragin maila:*

Irizpide hau ebaluatzeko, alderdi hauek hartuko dira kontuan: Bizkaiko artisauen eta haien hornitzaileen arteko sinergiak sortzeko erabilitako ekintzak; eta Bizkaiko artisautzaren ikusgarritasuna erraztekoak, bai turismoari begira, bai beste merkatu batzuei begirako proiektioarekin loturik.

Irizpide horiek honela haztatuko dira:

- 1. irizpidea: 30 puntu.
- 2. irizpidea: 50 puntu.
- 3. irizpidea: 10 puntu.
- 4. irizpidea: 10 puntu.

**11. artikulua. — Aurkeztu beharreko agiriak**

Eskabidearekin batera, arlo honen onurei heldu nahi dieten enpresek honako agiriak bidali behar dizkiote Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailari:

- Eskabidea bera, dekretu honen 27. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Proposatutako jarduerari buruzko memoria, web orrian eta Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko Kanpo Sustapenerako eta Turismorako Zuzendaritza Nagusiaren bulegoetan dauden ereduaren arabera, entitatearen legezko ordezkariak, behar besteko ahala daukanak, behar bezala beteta eta sinatuta.
- Hartzekodunaren fitxa, behar bezala beteta, baldin eta bankuko helbideratzea aldatu nahi bada, Bizkaiko Foru Aldundiak eskura duen informazioa aldatzeko.
- Ingurumeneko ziurtagiria (hala badagokio).
- Beste ziurtagiri batzuk (hala badagokio).

12. artikulua. — Gastuaren justifikazioa

Diru-laguntzen pertsona zein enpresa onuradunek gastua justifikatu beharko dute 2020ko otsailaren 28a baino lehen. Horretarako, agiri hauek aurkeztuko dituzte:

- Idazki bat; bertan labur deskribatuko da diru-laguntzaz egin den jarduera, eta azalduko da zer garrantzi duen artisautza-enpresarentzat, erakunde eskatzailea ordezkatzeko duen pertsonak bete eta sinatutakoa.
- Egindako gastuen fakturak.
- Fakturen ordainketen frogagiriak
- Hala denean, hauen kopia: jarduera egiten hasteko aurretiazko komunikazioa, obren aurretiazko komunikazioa edo, hala badagokio, obra lizentzia, alokairu kontratua, sustapen-materiala, web orriaren helbidea, egindako ikastaroen edota bisitatutako azoken liburuxka, kanpoko profesionalak kontratua eta haiek egindako azterketa...
- Emakume eta gizonen berdintasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, l. eranskinen ereduaren arabera.
- Beharrezkoa denean, sustapen-jardueraren memoria, emaitzazko materiala eta hedapen- eta sustapen-jardueren plana.
- Diru-laguntza emateko ebazpenean beren-beregi aurkezteko eskatzen dena.

Diru-laguntzaren oinarriaren %100 justifikatu beharko da, Bizkaiko Foru Aldundiak emandako diru-laguntzaren zenbatekoaz gain, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren arabera.

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak enpresa eskatzaileari eskatu ahal izango dizkio berak beharrezkotzat jotzen dituen agiri edota informazio osagarriak, aurkeztutako eskabidea ondo ulertu eta ebaluatzeko eta haren jarraipena egin ahal izateko.

II. KAPITULUA**2. ARLOA, TOKIKO ENTITATEEK ETA ARTISAUTZA-ELKARTEEK BULTZATURIKO JARDUERAK****13. artikulua. — Helburuak**

Arlo honen bitartez, sektorearen kokapena eta lehiakortasuna hobetzeko jarduketan alde egiten da, bai eta Bizkaiko artisautza-ekoizpenaren balioa gehitzearen alde ere.

**14. artikulua.—Entitate onuradunak**

Arlo honetan azaldutako onuren jasotzaileak izan ahalko dira:

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-erakundeak eta artisautza-elkarteak

Foru dekretu honetako 2. arloan adierazitako diru-laguntzak jaso ahal izango dituzte Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-erakundeak eta nortasun juridikoa duten artisautza-elkarteak. Horretarako, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Zerga-egoitza eta sozietate-egoitza Bizkaian izatea.
- b) Bizkaiko Lurralde Historikoko Artisautzako Entitateen Erregistroan inskribatuta egotea, salbu eta toki-erakundeak eta haien entitate autonomiadunak.
- c) Sexuaren ziozko bereizkeria dela eta, inoiz zehapenik jaso gabe egotea.
- d) Ez egotea Diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren 12. artikulua ezartzen dituen inguruabarretako baten ere.
- e) Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan beteta izatea, baita diru-laguntzak itzultzeagatik betebeharretan ere ordainketak egunean edukitzea.

2. Entitateen elkarteak

Diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren 10.3. artikuluan ezarritakoaren arabera lankidetzako jarduerak egiten dituzten elkarteak ere jaso ditzakete 2. arloko diru-laguntzak. Gainera, elkarteak honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Entitate bat liderra izatea, mintzakide bakarra izango dena, laguntzaren ondo-rioetarako.
- b) Entitate liderra izango da bera bakarrik 2. arlo honen onuradun izan litekeen entitate, artikulua honetako 1. zenbakian ezarritakoaren arabera.
- c) Entitate liderra izango da proiektuko jardueren portzentajerik handiena egin eta gasturik handiena egiten duen elkartzeko entitatea.
- d) Proiektuko jardueren eta egindako gastuaren %70, gutxienez, entitate hauek egin beharko dute: euren buruz bakarrik arlo honen onuradun izan litezkeen entitateak, artikulua honetako 1. zenbakian ezarritakoaren arabera.
- e) Elkartzeko entitate guztiek bete beharko dituzte artikulua honetako 1. zenbakian ezarritako b), c) eta d) betekizunak.

Elkartze hauek, elkartetzat joko badira, lankidetzak akordioa aurkeztuaz egiaztatu behar dute euren burua, entitate guztiek sinatuta. Akordio horretan, gutxienez, entitate bakoitzari dagozkion erantzukizunak eta jarduerak aipatu behar dira, eta entitate bakoitzari egotzi behar zaizkion eta proiektuarekin zerikusia duten kostuen eta sarreraren banaketaren aurreikuspena ere bai.

Elkartzeko entitate liderraren erantzukizuna izango da: eskabidea aurkeztea, diru-laguntza osorik justifikatzea, ordainketak jasotzea, elkartzeko entitate kide bakoitzari dagokion zatia banatzea, eta laguntzak ematen dituen organoarekin zerikusia duen beste edozein harreman.

15. artikulua.—Diruz lagun daitekeen egitatea

Hurrengo egitateak dira diru-laguntza hauek jaso ditzaketenak:

- a) Artisautza-enpresentzako trebakuntza-jarduerak antolatzea.
- b) Bizkaiko Lurralde Historikoan artisautza-azokak, sektorearentzat interesgarritzat jotzen direnak, antolatzea.
- c) Bizkaiko artisautza zabaldu eta sustatzeko jarduketak.
- d) Sektorearen kudeaketa eta lehiakortasuna hobetzeko jarduketak.

Diruz laguntzekoak diren egintza horiek garatzeko prozesuan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea sartuko da, helburu guztien zeharkako arlo gisa eta berdintasuna bera ere helburu dela. Hori gauzatzeko aukerak izango dira: parte-hartze



paritarioa sustatzea, azoketan eta beste ekintza batzuetan genero ikuspuntua ezartzea, hizkuntza eta irudiak modu ez-sexista batean erabiltzea, eta abar.

16. artikulua. — Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak

1. Diru-laguntza jaso dezakeen jardueraren oinarria zenbatzeko orduan, enpresa eskatzaileak aurkeztu duen jardueraren aurrekontuari begiratuko zaio —gastu-kontzeptuen arabera zehaztuta.

Zergei dagokienez, diruz laguntzeko moduko gastuak izango dira diru-laguntzaren pertsona onuradunak horiek benetan ordaintzen dituztenean. Ez dira inola ere diruz laguntzeko moduko gastuak izango zeharkako zergak, horiek berreskuratzeko edo konpentsatzeko modukoak direnean, ez eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere, hau da, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 5/2005 Foru Arauaren 29.8. artikulua ezartzen duenaren arabera.

2. Bereziki, honako gastu hauek dira diru-laguntzak jaso ditzaketenak:

- a) Prestakuntza ikastaroak ematearen ziozko gastuak, jasotzaileak artisautza-enpresak direnean (irakasleak, ikastaroa sustatzeko materiala, beharrezkoa den material didaktikoa).

Diru-laguntza jasotzeko aukera izateko, ikastaroek Bizkaiko artisautza-enpresentzat izan beharko dute, baina beste lurralde eta erkidego batzuetako artisauak ere bertaratu ahal izango dira. Era berean, entitate antolatzailekoak ez diren langile profesionalekin lankidetzan egin ahal dira ikastaroak.

Ikastaroaren gastua txikiagoa izango da Bizkaiko artisautza-enpresentzat beste lurralde edo erkidego batzuetatik etorritako artisauentzat baino.

- b) Sektorearentzat intereseko diren artisautza-azokak Bizkaian antolatzearen ziozko gastuak, azokak bi egun irauten badu gutxienez.

Diru-laguntza jasotzeko aukera izateko, 2 egunez iraun beharko dute gutxienez. gainera, Bizkaiko artisauen erregistroan azaltzen diren artisautza-enpresa guztiei helarazi beharko zaie azokan parte hartzeari buruzko informazioa, posta elektronikoen bitartez; betiere, beste jakinarazpen-bide batzuk erabil daitezke.

Horrez gain, egiaztatu beharko da parte hartzen duten artisauen %50etik gora bizkaitarrak direla, salbu eta azokan parte hartzeko eskaera egiten duten artisau bizkaitarren kopurua ez bada ehuneko horretara heltzen; kasu horretan, behar bezala justifikatuko da hala dela.

Bizkaiko Artisautzako Enpresen Erregistroan inskribatuta dauden artisautza-enpresek azoketan aurkeztu behar dituzte jarduerari dagozkion produktuak.

Bizkaiko artisauentzako standaren kostuak txikiagoa izan beharko du beste lurralde edo erkidego batzuetatik etorritako artisauentzakoarena baino.

Era berean, enpresa parte-hartzaile guztiek, azoka egiten denean, eurei dagozkien erregistroetan alta emanda egon beharko dute; hori ez ezik, erregistro horietan daudela frogatu beharko dute ziurtagiri bidez. Hala ere, enpresa parte-hartzaileak jarduera garatzen duen lekuan erregistrorik ez badago, orduan egiaztatu beharko du data horretan Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren epigrafean alta emanda dagoela. Halaber, azokan parte hartu ahal izango dute artisautza-produktuak egiten badakitela erakusten duten Bizkaiko pertsonak, Bizkaiko Artisauen Erregistroan alta emanda egon ez arren, baldin eta galtzeko arriskua duten artisautza-ofizioetako bat egiten badute eta azokan parte hartuko duten denboraren zati bat ofizio hori erakusteko erabiltzen badute.

Nolanahi ere, partaidetza hau baimenduko da: Bizkaiko Lurralde Historikoko Artisautzako Entitateen Erregistroa arautzen duen apirilaren 8ko 46/2014 Foru Dekretua garatzeko 3564/2014 Foru Aginduan artisautza-lanbidetzat jotzen ez diren lanbideei dagokien partaidetza osoaren %15etik beherako partaidetza.

Entitate eskatzaileak ziurtatu beharko du Bizkaiko Artisauen Erregistroan inskribatuta dauden Bizkaiko artisautza-enpresak, azokara joaten direnean, standean



eta ondo ikusteko moduko lekuren baten, Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa dutela.

- c) Bizkaiko artisautzaren berri zabaltzeko eta hura sustatzeko jardueren gastuak. Atal honetan sartzen dira Bizkaiko artisautzaren berri zabaltzeko eta hura sustatzeko jarduerak eragindako gastuak. Baita, Bizkaian artisautza sustatzeko beste entitate batzuekin batera proiektuak egiteak eragindako gastuak ere, baldin eta artisautzaren bideragarritasuna aztertzeko, artisautza merkaturatzeko edota artisautza balorizatzekeo badira.

Diru-laguntza jasotzeko aukera izateko, Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa eduki beharko dute. Horretarako.

Gainera, kontuan hartuko da, nahitaez, bi hizkuntza ofizialen erabilera orekatua.

- d) Artisauen elkarteek sektorearen kudeaketa eta lehiakortasuna hobetzeko egindako gastuei dagozkienak.

Hurrengoek ez dute diru-laguntzarik jasoko: dekretu honetako beste edozein kontzepturengatik banaka diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak, barbarako, prestakuntza-jarduerak, ibilgetuak eskuratzea, ekipamendua...

3. Artisautza-azoken arloan emandako sariei dagokienez edo Bizkaiko artisautzaren berri zabaltzeko eta hura sustatzeko jarduerari dagokienez, eta halakoetan diru-laguntzak jaso ahal izateko modukoak izateko, atxikipena eginda eduki beharko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia onesten duen apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuan eta Sozietateen gaineko Zergaren Araudia onesten duen abenduaren 23ko 203/2013 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera.

4. Kasu guztietan, jarduketa behar beste justifikatuta egon beharko da, eta beharrezkoa eta koherentea izango da, enpresaren artisautza-jardueraren garapenari dago-kionez, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren aburuz.

5. Helburu horiek lortze aldera, guztiekiko zeharka eta helburu gisa hartuta, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren sustapena barneratuko da. Horri lotuta martxan jar daitezkeen ekintzen artean, aipatzekoak dira prestakuntza ikastaroetan eta material didaktikoetan genero-ikuspegia ezartzea, irakasleen artean eta azoketan artisautza enpresen artean paritatea sustatzea, artisautza zabaltzeko eta sustatzeko ekin-tzetan hizkuntza eta irudiak modu ez-sexistan erabiltzea...

6. Diru-laguntzaren xedeko proiektua elkarlanean garatzen duten elkarteek ka-suetan, proiektua burutzeko entitate laguntzaile guztiek egindako gastuak sartu ahalko dira diruz lagun daitezkeen oinarrian.

7. Gastuek diru-laguntza jasotzeko aukera izango dute baldin eta horiek guztiok sortu badira 2019ko urtarrilaren 1etik 2020ko urtarrilaren 31ra, eta 2020ko otsailaren 28a baino lehen ordaindu badira, 6. artikuluko taulan prestakuntza ikastaroetan eta azoketan parte hartzeko ezarritakoan izan ezik.

8. Hurrengo gastuok, berriz, ezin izango dituzte diru-laguntza hauek jaso:

— Eskatzaileari lotutako beste pertsonen bidez egindako gastuak, ondoko baldintzak bete ezik:

- 1) Kontratazioa merkatuko baldintza normalen arabera egitea.
- 2) Aldez aurretik organo emailearen baimena lortzea, oinarri arauetan zehazten denaren arabera.

— Diru-laguntzaren xedeko jarduerarekin inolako zalantzarik gabe identifika ezin dai-tezkeen gastuak edota deialdi bakoitzean ezarritako epearen barruan egin ez diren gastu guztiak.

— Ospakizunek, agapeek edo sustapen-jaiek eragindako gastuak

— Elkarteen edo toki erakundearen barruko edo kanpoko pertsonalaren gastua, proiektuan onartutako kanpoko gastuaren %20tik gorakoa bada.

— Elkarteen edo toki erakundearen telefonia-gastuak edo ohiko funtzionamenduari da-gozkion beste hornidura batzuen gastuak.



9. Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak baderitzo gastu-aurrekontua gehiegizkoa dela antzeko izaerako gastuen batez besteko kostuarekin alderatuz gero, orduan diruz lagun daitekeen oinarria murriztu dezake Sailak, bere ustez doitua eta neurrikoa den gastuari dagokion zenbatekoan.

17. artikulua. — Proiektuak egiteko epeak

Dekretu honen 2. arloaren babesean toki-erakundeek eta elkarteek dekretu honen babesean garatuko dituzten 2. arloko jarduerak 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasi beharko dute eta 2020ko urtarrilaren 31 baino lehen amaitu.

18. artikulua. — Laguntzen zenbatekoa

Diru-laguntza zehazteko, betiere dekretu honen 2. arloaren arabera Tokiko entitateek eta artisautza-elkarteek egiten dituzten eskabideei dagokiena, kontuan hartu beharko dira diru-laguntzaren gehieneko portzentajeak eta artikulua honetan ezartzen diren gehieneko muga absolutuak.

Jarduketa Actuación	Diru-laguntzaren gehieneko %-a % máximo de subvención	Gehieneko diru- laguntza, entitate bakoitzeko (eurotan) Subvención máxima a recibir por hecho subvencionable (euros)
a) Artisautza-enpresentzako trebakuntza-jarduerari dagozkienak. Actividades de formación, dirigidas a empresas artesanas.		
Gastua, antolatutako ikastaro bakoitzeko. Gasto por curso organizado	75	20.000
b) Bizkaiko Lurralde Historikoan artisautza-azoka interesgarriak antolatzeari dagozkionak. Organización en el Territorio Histórico de Bizkaia de ferias de artesanía, consideradas de interés para el sector		
Azoka antolatzeakostua, 7 eguneko edo gutxiagoko azoka bada. Coste de organización de feria con duración inferior o igual a 7 días.	50	35.000
Azoka antolatzeakostua, 7 egun baino gehiagoko azoka bada. Coste de organización de feria con duración superior a 7 días.	50	45.000
c) Bizkaiko artisautza zabaldu eta sustatzea Difusión y promoción de la artesanía de Bizkaia		
Bizkaiko artisautza sustatzeko eta haren berri zabaltzeko gastuak Gastos para la promoción y difusión de la artesanía de Bizkaia	75	25.000
d) Sektorearen kudeaketa eta lehiakortasuna hobetzeko jarduketak Actuaciones para la mejora de la gestión y de la competitividad del sector		
Artisautza-sektorearen kudeaketa eta lehiakortasuna hobetzeko jardueren kostua Coste de actuaciones para la mejora de la gestión y la competitividad del sector artesanal	50	15.000

Urte anitzeko aurrekontua badago, jarduketa noiz egiten den alde batera utzita, laguntza bi aurrekontu-ekitaldiren kontura adjudikatu ahal izango da.

19. artikulua. — Emateko prozedura

Diru-laguntzak emateko prozedura izango da norgehiagokaren araubidekoa, dekretu honetako 31. eta hurrengo artikuluen arabera.

**20. artikulua.— Balorazio-irizpideak**

2. arloari dagozkion diru-laguntzak emango zaizkie eskabideei, baldin eta balorazio-rik onena jaso badute onuradun izateko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten elkarteetan eta toki-erakundeetan artetik. Horretarako, honako irizpide hauek erabiliko dira:

1. Artisautza-sektorearen sustapena hobetzea

Irizpide hau ebaluatzeko, honakoak hartuko dira kontuan: artisautza sakatu, zabaldu eta sustatzen dituzten jarduketak egitea, bai eta haien balorizazioa ere; horiek ez ezik, Bizkaiko artisautza-jarduera sustatzeko entitateen arteko lankidetzak proiektuak egitea, eta hark kanpoan duen proiektzioa ere.

2. Proiektuaren kalitatea eta bideragarritasuna

Irizpide hau ebaluatzeko, honako hauek hartuko dira kontuan: batetik, jardueraren egokitasunari eta bideragarritasunari buruzko aurretiko azterketa bat dagoen; bestetik, elkarteak edo tokiko erakundeak aurretik beste jarduketa batzuk egin dituen, hau da, jardueran horretan ibilbide bat dakarten edo, aurreko urteekin alderatuta, hobekuntzak eta ikasbideak dakartzaten, sektorearen beharrezanez hobeto erantzuteko, lehiakortasuna areagotzeko eta kasuan kasuko proposamenak artisautzako enpresen aldetik onarpen handiagoa lortzeko.

3. Ekimenaren berritasuna

Irizpide hau ebaluatzeko, honako hauek hartuko dira kontuan: sektorerako berrikuntzak proposatzea, proiektu estrategikoak sustatzea, planteatutako proposamenen sormen eta berrikuntza, edo proiektuak proposamen ezberdinak jasotzea aurreko urteekin alderatuta...

4. Diru-laguntza jaso dezakeen jardueraren eta Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren helburuen arteko koherentzia

Irizpide hau ebaluatzeko, honako hauek hartuko dira kontuan: proposamena zenbateraino egokitzen zaien Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren ardatz estrategikoei; artisautza-enpresa berririk sustatzen den; artisautzarako bokazio berririk sartzen den; etengabeko prestakuntza eskaintzen den; artisautza-sektoreari ematen zioan bultzada, bai kanpora begira, bai industria turistikoaren barruan; berrikuntza eta diseinua sustatzen diren; lankidetzak sorkuntzaren inguruko beste arlo batzuekin; Bizkaiko artisautzaren alde urtean zenbat jarduketa egiten diren...

5. Entitateak ingurumenarekin eta berdintasuna sustatzeko duen konpromisoa

Irizpide hau ebaluatzeko, honakoak hartuko dira kontuan: entitate eskatzaileak egiaztatu dituen eta indarrean dauden ingurumen-ziurtagiriak, andrazkoentzat dien postuen portzentajea, andrazkoen eta gizonezkoen arteko egoera berdinkidea sustatzea, eta horretarako eskumena duen entitate publikoak emandako gainerako aitortpen eta diplomak.

Irizpide horiek honela haztatuko dira:

- 1. irizpidea: 30 puntu.
- 2. irizpidea: 10 puntu.
- 3. irizpidea: 30 puntu.
- 4. irizpidea: 25 puntu.
- 5. irizpidea: 5 puntu.

21. artikulua.— Eskabideak

Eskabidearekin batera, arlo honen onurei heldu nahi dieten enpresek honako agiriak bidali behar dizkiote Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailari:

- Eskabidea bera, dekretu honen 27. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Proposatutako jarduerari buruzko memoria, web orrian eta Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren bulegoetan dauden ereduaren arabera, entitate es-



katzailearen legezko ordezkariak, behar besteko ahala daukanak, behar bezala beteta eta sinatuta.

- Azokei dagokienez, Bizkaiko Erregistroko enpresen zerrenda eta azoka egiteari buruzko informazioa haiei eman izanaren jaso-agiriak; eskatzaileen zerrenda, eta onartutako eta baztertutako eskatzaileen zerrenda, horretarako arrazoiak ondo adierazita (aurreko hori ez badago prest eskabidea egiteko epea ixten den egunean, prest egon bezain laster aurkeztuko da).
- Hartzekodunaren fitxa, behar bezala beteta, baldin eta bankuko helbideratzea aldatu nahi bada, Bizkaiko Foru Aldundiak eskura duen informazioa aldatzeko.
- Lankidetzatza-hitzarmena (egokia bada), proiektua elkartzean garatzen duten entitateen artekoa; berean ezarriko da zelan banatzen diren erantzukizunak eta jarduerak, bai eta zelan banatuko diren kostuak eta sarrerak ere.

Arestiko baldintzetako baten bat betetzen ez duten hitzarmenek ez dute balioko lankidetzatza egon dela frogatzeko.

- Ingurumeneko ziurtagiria (hala badagokio).
- Beste ziurtagiri batzuk (hala badagokio).

22. artikulua. — *Gastuaren justifikazioa*

Dekretu honen 44. artikuluan ezarrita dagoen legez, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira 2020ko otsailaren 28a baino lehen, bai gastua justifikatzeko, bai espedientearen itxeko:

- Justifikazio-memoria; behar bezala bete behar da eta eskaera egin duen entitatean behar besteko ahalmena duen pertsonak sinatu behar du.
- Memoria ekonomikoa, II. eranskinaren ereduaren arabera, erakunde eskatzailea ordezkatzeko ahalorde nahikoa duen pertsonak bete eta sinatutakoa.
- Egindako gastuen fakturak.
- Fakturen ordainketen frogagiriak
- Gizarte Segurantzaren TC1 eta TC2, eta T10 zerga-agiria (horiek izan ezean, kontratuaren eta nominen kopia), eta enpresaren legezko ordezkari gisa diharduen pertsonak sinatutako ziurtagiria. Ziurtagiri horretan zehaztu behar dira proiektuari egotz dakizkiokeen langileen zuzeneko gastuak, eta zehaztuko dira prozesuarekin zerikusia duen pertsona bakoitzaren arduraldiko lanorduen kopurua eta orduko kostua ere.
- Emakume eta gizonen berdintasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, foru dekretu honen I. eranskineko ereduaren arabera.
- Hala denean, hauen kopia: ikastaroaren programa, dokumentazioa, eta onartutako eta baztertutako eskatzaileen zerrenda, arrazoiak emanda, eta jarduketaren azalpen-memoria,
- Hala denean, onartutako eta baztertutako enpresa eskatzaileen zerrenda, arrazoiak emanda, azokan parte hartzen duten enpresen erregistroko ziurtagiria, sustapen-materiala, azokaren azalpen-memoria: jardueren deskripzioa, egindako tailerrak, sustapen-ekitaldiak, argazkiak, programa...
- Hala denean, sustapen-jardueraren memoria, sortutako materiala, eta zabaldu eta sustatzeari dagokion jarduera-plana.
- Hala denean, egindako azterlanak eta jardueraren txostena.
- Diru-laguntza emateko ebazpenean beren-beregi aurkezteko eskatu dena.

Diru-laguntzaren oinarriaren %100 justifikatu beharko da, Bizkaiko Foru Aldundiak emandako diru-laguntzaren zenbatekoaz gain, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren arabera.



Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak enpresa eskatzaileari eskatu ahal izango dizkio berak beharrezkotzat jotzen dituen agiri edota informazio osagarriak, aurkeztutako eskabidea ondo ulertu eta ebaluatzeko eta haren jarraipena egin ahal izateko.

III. TITULUA

DIRU- LAGUNTZENTZAKO XEDAPEN KOMUNAK

23. artikulua. — Araubide juridikoa.

1. Diru-laguntzek honako arau hauetan xedatutakoa bete beharko dute: dekretu honetan, laguntzak emateko foru aginduetan, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan eta hura garatzen duen erregelamenduan (Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsiari), eta Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 27ko 16/2018 Foru Dekretuan, honen bidez, onartutako Diru-laguntzen Erregelamendua aldatzen da; eta Estatuko edo Europako Erkidegoko gainerako arau aplikagarrietan.

2. Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua erakunde pribatu hauei aplikatuko zaie: aurrekontu-ekitaldi baten zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euro edo gehiagoko laguntzak edo diru-laguntzak jasotzen dituztenei edo urteko diru-sarreraren %40 Aldundiaren laguntzetatik edo diru-laguntzetatik jasotzen dutenei, betiere gutxienez 5.000 euro badira.

3. Interesdunak ematen dituen datuak foru-dekretu honetatik eratoritzen diren prozedurak kudeatzeko erabiliko dira, kontuan harturik zer ezartzen den honako araudi honetan: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena (Datuak babesteko erregelamendu orokorra), eta Datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.

Datu horiek inola ere ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarren batzuei lagako, interesdunak argi eta garbi ados dagoela adierazi ezean edo goian aipaturiko araudian ezartzen diren kasuetan izan ezik.

Araudi horretan xedatzen dena betetzeko, interesdunak honako eskubide hauek baliatu ahal izango ditu datuen tratamenduaren arduradunaren aurrean: datuak eskuratze-ko, zuzentzeko, ezerezteko («ahaztua izateko eskubidea»), haien tratamendua mugatzeko eta datuok eramangarri izateko eskubideak, bai eta tratamendu automatizatuan soilik oinarrituriko erabakirik ez jasatekoa (barne harturik profilen sorrera), baldin eta erabakiak eragin juridikoak badakartzkio edo, modu bertsuan, beragan eragin nabarmenik badu. Era berean, edozein momentutan erreboka dezake lehen adierazitako onarpena.

Halaber, erreklamazioa aurkezteko eskubidea izango du Datuen Babesaren Kontrol Agintaritzaren aurrean.

4. Administrazio prozedurari dagokionez, dekretu honetan ezarri ez den guztirako Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea aplikatuko da. Hala ezin bada, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

24. artikulua. — Aurrekontuen muga

Aurkeztutako eskabide guztietatik hautatu ahal izango dira aurrekontuetan helburu honetarako izendatutako baliakizunek ahalbidetzen duten bezainbeste.

25. artikulua. — Diru-laguntzen bateragarritasuna

Dekretu honen babesean ematen diren laguntzak bateragarriak izango dira beste organismo publiko edo pribatu batzuek eman dezaketen beste edozein laguntzarekin. Halere, Diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren 18.3 artikuluan ezarritakoaren arabera,



emandako diru-laguntzaren zenbatekoa inola ere ezin da izan, bera bakarrik edo beste batzuei batuta, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

Nolanahi ere, diru-laguntzen entitate onuradunek Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailari jakinarazi beharko diote beste diru-laguntzarik jaso duten, kontuan hartu barik zein egunetan ematen den. Horrek guztiak hala behar du, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 18.3 eta 18.4 artikuluetan ezarritako ondorioetarako. Horrela, beraz, diru-laguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da, eta, hala badagokio, dirua itzultzeko prozedura hasi ahal izango da.

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saila harremanetan jarri ahalko da beste alderdi finantzatzaileekin, baterako finantzaketa adosteko.

26. artikulua. — Laguntzaren publizitatea

Dekretu honen babesean ematen diren diru-laguntzen onuradun geratzen diren pertsonak egin beharko dute jaso duten laguntzaren publizitatea, zelan eta jasotako laguntza aipatuz eta, ondo ikusteko moduko leku baten, Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa sartuz; eta hori egingo da material, argitalpen edo ekitaldi guztietan, zelan eta lagundutako jarduketa guztietan zabalkunde publikoa eginaz.

27. artikulua. — Entitate laguntzailea

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak berari atxikitako foru sozietate publiko batzuen laguntza du bere helburuak lortzeko. BEAZ, S.A.U., da sozietate horietako bat, eta laguntzen programan esku hartuko du entitate laguntzaile gisa, Bizkaiko Foru Aldundiarekin sinatutako lankidetzat-hitzarmenean ezarritakoaren arabera.

BEAZ, S.A.U., entitate laguntzaileak Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren izenean eta kontura jardungo du; sail hori izango da, ondorio guztietarako, dekretu honetan ezarritako laguntzen emaila.

IV. TITULUA

DIRU- LAGUNTZAK ESLEITZEKO PROZEDURA

28. artikulua. — Eskabideak aurkeztea

1. Pertsona fisikoen kasuan (1. arloa), ahal dela, Internet bidez aurkeztu behar da eskabidea, atal guztiak behar bezala beteta dituela, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren web orrian (www.bizkaia.eus/sustapena-bulegobirtuala), bulego birtualaren atalean. Dena dela, Zuzenbidean onartutako beste edozein bide ere balia daiteke eskabidea aurkezteko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.1 artikuluekin bat etorruta.

2. Pertsona juridikoen eta nortasun juridikorik gabeko entitateen kasuan (1. arloa), eta toki-erakundeen, artisautza-elkarteen eta erakundeen elkartearen kasuan (2. arloa), nahitaez Internet bidez aurkeztu behar da eskabidea, atal guztiak behar bezala beteta dituela, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren web orrian (www.bizkaia.eus/sustapena-bulego-birtuala), Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluekin bat etorruta.

Eskabidea aurkezteko, ezinbestekoa izango da entitatea Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren Bizkaiko Lurralde Historikoko Artisautzako Entitateen Erregistroan alta emanda egotea (107/2018 Foru Dekretua, uztailaren 24koa). Alta emanda ez badago, entitateak emateko eskabidea bete beharko du, inskripzioa egiteko, betiere, diru-laguntzarako eskabidea izapidetu baino lehen.

Eskatzaileek (1. arloa) eskabide bat aurkeztu behar dute diru-laguntzaren xede diren jarduketa guztietarako.

Toki-erakundeek, elkarteek eta elkarteek (2. arloa) jarraian adieraziko diren irizpideen aplikazioaren emaitzako eskabideak beste aurkez ditzakete:

— Eskabide bat artisautza-enpresentzat zuzenduta dauden prestakuntza jardueretik bakoitzeko.



- Eskabide bat antolatuko duten artisautzako azoka bakoitzeko.
- Eskabide bat Bizkaiko artisautzaren zabalkuntza eta sustapeneko jarduera guztietarako.
- Eskabide bat sektorearen kudeaketa hobetzeko eta lehiakortasuna sustatzeko jarduera guztietarako.

3. Aurrekoaren arabera, eskabideak bide telematikoenetik aurkeztu behar direnez, interesdunek aldeztu aurretik sinadura elektronikoa (izenpe, ONA, NAN elektronikoa, FEA...) izan edo Bizkaibai zerbitzuan alta eman beharko dute, edo bestela, B@kQ ziurtagiri elektronikoaren bidez sartu ahal izango dira (gure bulegoetan eska daiteke, Orueta apezpikuaren kalea, 6, Bilbo), Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren Ekonomikoa eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailarekiko harremanetako bide telematikoen erabilerrazko prozedura arautzen duen apirilaren 19ko 3037/2011 Foru Aginduekin bat etorritik. Alta prozeduraren gaineko informazioa eskuragarri dago Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren web orrian.

4. Nolanahi ere, organo instruktoreak elkarrekin zerikusia duten eskabideak taldeka edo banaka ditzake, baldin eta baderitza neurri egokia dela, eskabideok ondo aztertu eta ebaluatzeko eta diru-laguntzaren xedeko jarduerara ondoen egokitzen den egitate lagungarria zehazteko.

5. Eskatzaileak, diru-laguntzarako eskabidea aurkeztean, baimena ematen dio organo instruktoreari, 3 eta 13. artikuluek aipatu inguruabarren egiaztapena zuzenean lortu ahal izan dezan; hori egin ahal izango da ziurtagiri telematikoen egokien bidez, betiere martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Diru-laguntzen Erregulamenduaren 17.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

6. Eskabideekin batera jarduketa-arloetako bakoitzean ezarritako agiriak aurkeztu beharko dira; horretarako, ahal dela, arestian aipatutako atari birtualean agiriak eransteko dagoen sistema erabiliko da.

29. artikulua.—*Eskabideak aurkezteko epea*

Eskabideak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da; epe hori zenbatuko da foru dekretu honetako deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera.

30. artikulua.—*Laguntzak emateko prozedura antolatu, aztertu eta ebatziko duten organo eskudunak*

Diru-laguntzetarako eskabideak izapidetuko ditu organo instruktoreak, eta eskabideak ebazteko, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko sailburuak esanbidezko ebazpena emango du, Kanpo Sustapenerako eta Turismorako Zuzendaritza Nagusiak proposamena egin ondorik.

Laguntzak emateko prozedura antolatzeko, bideratzeko eta ebazteko organo eskudunak osatzerako orduan, kontuan hartu beharko da bi sexuen artean ordezkartza orekatuta dagoela; horrek esan nahi du bi sexuek ordezkartza bat eduki beharko dutela, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

31. artikulua.—*Gastuen doikuntza*

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak baderitza gastu-aurrekontua gehiegizkoa dela antzeko izaerako gastuen batez besteko kostuarekin alderatuz gero, orduan diruz lagun daitezkeen oinarria murriztu dezake Sailak, bere ustez doitu eta neurrikoa den gastuari dagokion zenbatekoan.

32. artikulua.—*Laguntzak emateko prozedura*

Dekretu honetan jasotako diru-laguntzak emateko prozedura norgehiagoka izango da, eta hautatzeko prozedura bakar baten bidez egingo da. Hala ere, kasuan kasuko aurrekontu-ekitaldian, deialdi bat baino gehiago onartu ahalko da diru-laguntzen arlo bakoitzean.



Dekretu honen ondorioetarako, haxe hartzen da norgehiagokatzat: diru-laguntzak emateko prozesu honetan aurkeztutako eskabideak alderatu egiten dira, jarduketa-arlo bakoitzean ezarri diren balorazio-irizpideekin bat etorritik horien artean hurrenkera bat ezartzeko. Horrela, deialdi honen barruan eskura daitekeen kreditua muga moduan ezarrita, baloraziorik handiena lortu duten eskabideek jasoko dute diru-laguntza.

33. artikulua. — Txostenaren instrukzioa

Eskabideen espedienteak honelaxe izapidetuko dira:

1. Eskabideak behar bezala beterik ez badaude edo deialdian ezarritako agiriak erantsita ez badituzte, organo instruktoreak eskatuko dio entitate eskatzaileari, akatsa konpon dezan edo behar diren agiriak aurkez ditzan, jakinarazpena egin eta biharamunetik zenbatzen hasiko den hamar (10) egun baliodunetako epean; eta ohartaraziko zaio, hori egiten ez badu, uste izango dela, eskabidea bertan behera utzi duela; horretarako, ebazpena emango da beren-beregi. Hori guztia egingo da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakoaren arabera.
2. Organo instruktoreak egiaztatuko du pertsona edo entitate onuradun gertatzeko ezarritako baldintzak betetzen direla.

Nolanahi ere, organo instruktoreak entitate eskatzaileei eskatu ahal izango die, aurkeztu diren eskabideak behar bezala ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat hartzen dituen agiri edota argibide guztiak jasotzeko.

34. artikulua. — Eskabideen ebaluazioa

1. Eskabideak ebaluatuko dituen organo instruktoreak behin betiko ebazpen-proposamena egingo du. Proposamen horrek ez die inolako eskubiderik emango proposamen horretan bertan onuradun ageri diren pertsonen edo entitateen.
2. Diru-laguntza eskabideen ebaluazio-irizpideak ezartzen dira dekretu honetan jasotako arloetako bakoitzean.

35. artikulua. — Ebazpen-proposamena

1. Ebaluazioa egin ondoren, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak egiaztatu egingo du entitate eskatzaileak Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta dituela, eta ondore horretarako alde aurretik Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorri eskabidea egingo dio. Halaber, Ogasun eta Finantza Sailari eskatuko dio entitate eskatzailearen zerga-egoeraren ziurtagiria.
2. Behin egiaztatuta, instrukzioaz arduratzen den organoak Kanpo Sustapenerako eta Turismoarako Zuzendaritza Nagusiari ebazpen proposamena igorriko dio.

36. artikulua. — Ebazteko epea

Foru dekretu honen babesean aurkezten diren eskabideak ebazteko gehieneko epealdia 6 hilabetekoa izango da; epe hori zenbatuko da noiztik eta deialdi honen eskabideak aurkezteko epea amaitzen den unetik.

Ebazpena emateko eskumena duen organoak ebazpena eman behar du beren-beregi aurkeztutako eskabide guztien gainean; nolanahi ere, ebazpena eta jakinarazpena emateko epea muga-eguna igarota, ebazpenik ematen ez badu beren-beregi, orduan ulertuko da eskabidea administrazio-isiltasunez ezetsi dela, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan eta maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 23.5 xedatutakoarekin bat etorritik.

37. artikulua. — Ebazpena

1. Kanpo Sustapenerako eta Turismoarako Zuzendaritza Nagusiak ebazpen-proposamena igorriko dio Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko foru diputatuari, eta honek ebatziko du foru agindu baten bidez.



2. Ebazpenak ekarriko ditu onartutako eta ukatutako laguntzak. Horrez gain, hau ere bai ekarriko du: entitate onuradun izateko foru dekretu honetan ezarri diren baldintza administratibo eta teknikoak betetzen dituzten, baina deialdiari dagokion kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditu izanagatik onartu ezin izan diren eskabideen zerrenda. Eskabide bakoitzari esleitutako puntuen kopurua adieraziko da; izan ere, puntuazio hori eman behar da dekretu honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera,.

3. Diru-laguntza ematen duen ebazpenean baldintza bereziak ezarri ahalko dira, baldin eta komenigarria dela baderitzo, dela proiektuen izaera bereziagatik, dela beste-lako inguruabarrak agertzeagatik. Horren helburua hauxe izan da: foru dekretu honetan, edo deialdian honetan ageri den arautegian xedatutakoa kasu bakoitzari aplikatu eta egokitzea.

4. Ebazpena interesatuei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40, 41, 42 eta 43. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz.

5. Ebazpenaren jakinarazpena jaso ondoren, pertsona edo entitate onuradunak hamar (10) egun balioduneko epea izango du —jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita—, baiezkota emateko. Epe hori amaitu eta interesdunek ez badute ezer adierazi, ebazpena isilbidez onartu dela ulertuko da.

6. Era berean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean ebazpenaren laburpena argitaratuko da.

38. artikulua.— Errekurtsoak

Ebazpenak administrazio bidea agortzen du. Beraren aurka berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango zaio Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko foru diputuari, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete (1) pasatu baino lehen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoarekin bat etorritz.

Halaber, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioan, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik bi hilabete pasatu baino lehen, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa araupetzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoarekin bat etorritz.

Ezin dira bi errekurtso horiek aldi berean jarri.

39. artikulua.— Diru-laguntzari uko egitea

1. Pertsona edo entitate onuradunetako batek diru-laguntzari uko egingo balio, organo emaileak erabaki ahal izango luke diru-laguntza ematea zerrendan, puntuen hurrenkerari jarraiki, hurrengo dauden pertsona edo entitate eskatzaileei ematea, baldin eta eskabide horiei aurre egiteko behar beste kreditu balego.

2. Diru-laguntza ematen duen organoak aukera horren berri emango die interesdunei, hamar eguneko epe luzaezinean diru-laguntza proposamena onar dezaten. Diru-laguntza eskatu duten pertsona edo entitateek proposamena onartzen dutenean, administrazio-organok laguntza emateko egintza eman eta jakinarazpenak egingo ditu.

40. artikulua.— Diru-laguntza ordaintzea

1. Diru-laguntzak zuzenean ordainduko dizkio onuradunari Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak. Ordainketa egin aurretik, onartu behar da emandako diru-laguntza onartu dela, foru dekretu honen 36.5 artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Kasu guztietan, aldeztu aurretik ordainduko dira emandako laguntzak; horretarako, ez da beharrezkoa izango onuradunei bermeak galdatzea; betiere, diru-laguntzaren amaierako justifikazioa egin behar da, dekretu honen 11 eta 21. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz.

**V. TITULUA****DIRU- LAGUNTZEN KUDEAKETA ETA EGIAZTAPENA****41. artikulua.— Azpikontratazioa**

Pertsona edo entitate onuradun batek azpikontratatazioa egin duela ulertuko da diru-laguntzaren xedeko jarduera zati batez edo osorik egitea beste norbaitekin kontratatzen duenean. Kontzeptu honetatik kanpo geratuko da pertsona edo entitate onuradunak berak bakarrik diruz lagundutako jarduera egiteko dauzkan gastuak kontratatzea. Ondorioz, makinak, ekipamendua eta material suntsigarriak eskuratzea ez da azpikontratazio-tzat joko, ez eta diru-laguntzaren xedeko jardueraren barruan lan zehatzak egiteko kanpoko zerbitzuak kontratatzea, ez eta diru-laguntzaren xedeko jardueraren beste gastu osagarri batzuk egitea ere.

Bigarren arloan, diruz lagundutako jardueren %85 arte azpikontratatu ahalko da, baina, horretarako, begiratu egin beharko dira 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan ezarritako baldintzak eta debekuak.

Diru-laguntzaren helburuaren egikaritzea aginduta duten entitateek errespetatu beharko dituzte, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezarritakoari jarraiki, bertan jarritako printzipio orokorrak; hori ez ezik, euren lanaren estatistikak genero-ikuspegira egokitu beharko dituzte, hizkuntza modu ez-sexistat erabili beharko dute, eta bermatu beharko dute eratzen diren batzordean eta lantaldeetan emakumeen eta gizonen artean ordezkaritza orekatuta dagoela.

Diru-laguntzaren entitate onuradunak, diru-laguntzaren xedeko jardueraren zati baten egikaritzea beste batzuekin hitzartzen duenean, eta jarduera horrek diru-laguntzaren zenbatekoaren %20a gainditzen duenean eta, horiez gain, azpikontratazioa 60 000 eurotik gorakoa bada, orduan entitate onuradunak Bizkaiko Foru Aldundiari baimena eskatu beharko dio azpikontratazio hori egiteko; horretarako, azpikontratazioaren baldintza nagusiak jakinarazi beharko dizkio, baita jardueraren egikaritzea zein entitatearekin hitzartuko duen ere.

Kanpo Sustapenerako eta Turismorako zuzendari nagusiak ebatzi beharko du eskabide hori ebazpen baten bidez, hamabost (15) eguneko epearen barruan; epe hori amaitutakoan ebazpena beren-beregi ematen ez bada, eskabidea onartutzat joko da.

42. artikulua.— Eskaintzak aukeratzea

Diru-laguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoak gainditzen dituen sektore publikoko kontratuei buruzko indarreko araudian kontratu txikietarako ezarritako kopuruak, orduan onuradunak gutxienez hiru pertsona edo entitate hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu, zerbitzua egiteko edo ondasuna emateko konpromisoa hartu baino lehen, salbu eta Diru-laguntzei buruzko Foru Arauan ezarritako egoeretako bat gertatzen denean betebeharrak hori salbuesteko.

Aurkeztutako eskaintzak aurkeztu behar dira egiaztagirian edo, bestela, diru-laguntzaren eskabidean. Eskaintza horien artean aukera egingo da, eraginkortasun eta ekonomia irizpideen arabera. Baldin eta proposamenik merkeena aukeratzen ez bada, orduan zergatia memoria baten justifikatu behar da beren-beregi.

43. artikulua.— Jarraipena

1. Foru dekretu honetan ezartzen diren diru-laguntzen pertsona edo entitate onuradunek agiri bidez frogatu beharko dute, laguntzen diren jarduerak gauzatu direla, baita ere diru-laguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituztela. Hori guztia frogatu beharko dute foru dekretu honetan, diru-laguntzari dagokion deialdian, esleipena dakarren foru aginduan ezartzen den moduan, bai eta Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak edo, entitate laguntzaile eskudunak, kasuan-kasuan, eskatzen duen unean.

2. Diru-laguntza ematen duen organoak ofizioz aldatu ahal izango du, diru-laguntza dakarren ebazpena, noiz eta onuradunari entzunaldia eman eta gero eta funtsak aplikatu aurretik, baldin eta diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatu direnean.



eta horiek oztopatu edo eragozten dutenean lortu nahi zen interes publikoa lortzea, betiere onuradunari kalte ekonomikorik erakarri barik.

3. Organo instruktoreak entzunaldien egutegia ezarri ahal izango du, eskatzaileek aukeran izan dezaten organoari berari azaltzea Artisautza Sustatzeko Programan aurkeztu dituzten proiektuak.

Halaber, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak, eta, hala badagokio, entitate laguntzaileak eskatu ahal izango dizkiote eskatzaileari beharrezkotzat jotzen dituzten agiri edota informazio osagarri guztiak, aurkeztutako eskabideak ondo ulertu eta ebaluatzeko, eta proiektuen garapenari buruzko ondorengo justifikazioak egiteko.

4. Entitate onuradunek, halaber, laguntza ematen duen organoari eskatu ahal izango diote, diru-laguntzak emateko ebazpena aldatzeko diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epea amaitu aurretik, betiere aipatu berri dugun aldaketaren bidez aldeztu aurretik ezarritako epeak luzatu nahi badira, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu nahi bada edo jardueraren barne dauden ekintzak aldatu nahi badira. Eskabide horiek baimena jasoko dute aurretik ikusi ez diren baldintzak gertatzen badira, edo aldaketak beharrezkoak badira jarduketa ondo egiteko, betiere diru-laguntzaren xedea aldatzen ez bada eta hirugarren pertsonen eskubideak urratzen ez badira.

Kasu horietan, pertsona edo entitate onuradunak itzuli beharko ditu berak jaso baina frogatu ez dituen diru-kopuruak, bai eta diruaren legezko interesa ere.

44. artikulua.— Justifikazioa egiteko epea

1. Diru-laguntzak dokumentu bidez justifikatu beharko dira, jarduketa-arloetako baioitza ezartzen diren epeen barruan.

2. Justifikazioa egiteko epea amaituta, baina justifikazio hori organo instruktoreari aurkeztu gabe, orduan organo horrek entitate onuradunari eskatuko dio hura aurkezteko, hamabost (15) eguneko epe luzaezinean. Justifikazioa ez bada ezarritako epean aurkeztu, orduan prozedura hasiko da, diru-laguntza itzultzeko; hori ez ezik, maiatzaren 31 5/2005 Foru Arauan ezarritako gainerako erantzukizunak ere eskatuko dira. Izan ere, foru arau horretan arautzen da Foru Administrazioak emaniko diru-laguntzen araubide juridiko orokorra.

45. artikulua.— Laguntzak justifikatzeko modua

Foru dekretu honetan arautzen diren diru-laguntzen entitate onuradunek justifikatu beharko dute proiektua egin dela, laguntza jasotzeko baldintzak bete direla eta diruz lagundutako proiektuaren zenbatekoaren gastua zertan erabili den. Horretarako, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duen Diru-laguntzen Erregulamendua onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 57. artikulua ikusita duen era erabiliko da, honela:

1. Pertsona fisikoaren kasuan (1. arloa), ahal dela, Internet bidez aurkeztu behar da, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren web orrian (www.bizkaia.eus/sustapena-bulegobirtuala), bulego birtualaren atalean. Dena dela, Zuzenbidean onartutako beste edozein bide ere balia daiteke eskabidea aurkezteko, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.1 artikuluekin bat etorruta.
2. Pertsona juridikoaren eta nortasun juridikorik gabeko entitateen kasuan (1. arloa), eta toki-erakunde, artisautza-elkarteen eta erakunde elkarten kasuan (2. arloa), nahitaez Internet bidez aurkeztu behar da eskabidea, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren web orrian (www.bizkaia.eus/sustapena-bulego-birtuala), Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluekin bat etorruta.

46. artikulua.— Baldintzak aldatzea

Entitate onuradunak justifikazioa egiteko orduan adierazten badu diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatu direla; eta aldaketa horiek ekarri ahal izan



balute ebazpena aldatzea, dekretu honetako 41 artikuluan araututakoaren arabera, eta diru-laguntza onartzeko aurretiazko baimen administratiboa gauzatzeko izapidea egin izan ez balitz, orduan diru-laguntza eman duen organoak onartuko luke onuradunek aurkeztutako justifikazioa. Kasu horretan, entitate onuradunak zehapenak jasoko ditu, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren arabera.

VI. TITULUA

DIRU- LAGUNTZAK ITZULTZEA ETA ARAU-HAUSTE ADMINISTRATIBOAK

47. artikulua. — *Diru-laguntza entitate onuradunak berak itzultzea*

Borondatezko itzulketa da onuradunak Administrazioaren inolako errekerimendurik gabe egiten duena.

Borondatezko itzulketa egiten denean, Administrazioak berandutze-interesak kalkulatuko ditu, Diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera eta onuradunak itzulketa benetan egin duen unea arte.

Onuradunak berak eskatuta diru-laguntza itzultzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren eredu ofizialaren araberrako ordainketa-gutuna erabili behar da; gutun hori Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren bulegoetan (Orueta apezpikuaren kalea, 6, Bilbo) egingo da.

48. artikulua. — *Diru-laguntzen gutxipena*

Diruz lagundutako ekintzak egin direla justifikatzeko ezarritako epeak igaro baina egiaztatu eta justifikatu ez bada ekintza guztiak aurrez ikusi bezala burutu direla, eta betiere laguntzen helburua eta xedea bete direla uste bada, diru-laguntzaren zenbatekoa doitzeari ekingo zaio, benetan justifikatutako kostuen arabera. Horretarako, proportzionaltasun-irizpidea erabiliko da, bai eta diru-laguntza emateko orduan ezarritako irizpideak eta mugak ere.

49. artikulua. — *Ez-betetzeak*

Foru dekretu honetan eta gainontzeko arau aplikagarrietan ezarritako beharkizunak edo ebazpenean ezar daitezkeen baldintzak betetzen ez badira, jasotako diru-kopuruak eta, bidezko denetan, haiei dagozkien legezko interesak itzuli beharko dira, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra ezarri duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren II. eta IV. tituluetan xedaturikoaren arabera, betiere, bidezkoak diren legezko ekintzen eta zigorren kaltetan jo gabe. Kopuru horiek diru-sarrerara publikotzat hartuko dira ondorio gutxietarako.

50. artikulua. — *Ez-betetzeak mailakatzeko irizpideak*

Ez-betetzea honako hauen arabera mailaka daiteke:

- Aldi berean beste laguntza batzuk gertatu direlako, gehiegizko finantzaketa sortzen denean — maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 18.3. artikuluan jasotako balizkoa —, gehiegi jasotako kopurua itzuli beharko da, kopuru horri berandutze-interes egokia ezarri eta gero.
- Baldintzetako bat edo batzuk betetzen ez badira edo epearen barruan jardueraren zati bat bakarrik egiten bada, diru-laguntzaren zati bat bakarrik ordainduko da edo, bestela, diru-laguntzaren zati bat itzuli beharko da. Itzulketa hori kalkulatzeko, jarduera osotik hartutako zatiaren proportzio bera erabiliko da.
- Diru-laguntza kobratu eta gero, egindako gastu guztiak edo batzuk ordaindu gabe gelditzen badira, diru-laguntza itzuli beharko da, diru-laguntza jaso dezaketen gastu egotzi guztiekiko ordaindu gabe dauden gastuen proportzioan.
- Diru-laguntza bat eman denean gastu-aurrekontu bat erreferentzia legez hartuta, baina egotzi eta justifikatutako gastua aurrekontuan ezarritakoa baino txikiagoa bada.



- e) Diru-laguntza ematen denetik justifikazioa aurkezteko epearen azken egunera arte ebazten bada artisau onuradunaren baja Bizkaiko Lurralde Historikoko Artisautzako Erakundearen Erregistroan.

51. artikulua. — Zehapen-prozedura

Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan ezarritakoa aplikatu behar da.

Urriaren 1eko 39/2015 Legean eta 40/2015 Legean ezarritako zehapen-prozedura erabiliko da.

AZKEN XEDAPENAK**Lehen Azken Xedapena. — Arauen garapena**

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko diputatuak ahalmena izango du, foru dekretu hau garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen xedapen guztiak emateko, bai eta, aurrekontu-baliakizunak amaitu ezean, beste deialdi batzuk egiteko ere.

Bigarren Azken Xedapena. — Aurrekontuko zuzkidura

Deialdi honetan eman daitezkeen laguntzek eta onurek, guztira, 300.000 euroko zenbateko osoa izango dute, eta kopuru hori ordainduko da ondoren zehaztuko diren aurrekontuko partiden pentzudan, aurrekontuko proiektuen pentzudan eta urtekoen pentzudan, kopuru hauetan banakatuta:

1. arloa. — Artisautza-enpresen jarduketak

- Ekitaldia 2019.
- Proiektua: 2007/0109.
- Partida: 08.08/443.00/432109.
- Zenbatekoa: 97.000 euro.

- Ekitaldia 2019.
- Proiektua: 2007/0109.
- Partida: 08.08/449.00/432109.
- Zenbatekoa: 2.000 euro.

- Ekitaldia: 2019.
- Proiektua: 2007/0109.
- Partida: 08.08/743.00/432109.
- Zenbatekoa: 60.000 euro.

- Ekitaldia: 2019.
- Proiektua: 2007/0109.
- Partida: 08.08/749.00/432109.
- Zenbatekoa: 1.000 euro.

2. arloa. — toki-erakundeek eta artisautza-elkarteek bultzaturiko jarduketak

- Ekitaldia: 2019.
- Proiektuaren zenbakia: 2007/0109.
- Partida: 08.08/432.99/432109.
- Zenbatekoa: 5.000 euro.

- Ekitaldia: 2019.
- Proiektua: 2007/0109.



— Partida: 08.08/451.00/432109.

— Zenbatekoa: 135.000 euro.

Halaber, aurrekontuetako 4. eta 7. kapituluetakoko kredituen eta aurrekontuko proiektuen arteko banaketa gutxi gorabeherakoa da; beraz, aurkeztutako eskabideen kopuruaren arabera eta egon daitezkeen entitate onuradunak askotarikoak direla kontuan izanik, aurrekontuko izendapenak banatu ahal izango dira artikuluko honetan adierazitako partiden artean.

Martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 43. artikuluan ezarritakoaren babesean (5/2005 Foru Araua garatzen duen Diru-laguntzen Erregelamendua onesten du dekretu horrek), aurrekontuko zuzkiduren zenbateko osoa zabaldu ahal izango da, gehienez ere 100.000.00 euro gehituz, baldin eta eskuragarri dauden kredituak handitu badira kreditu-zabalkuntzak onartu direlako edo kreditua sortu edo erantsi delako, edo baldin eta kopuru osagarri bat badago aurreko deialdiak ebatzi direlako aurkeztutako eskabideen zenbatekoa aurrez ikusitakoa baino txikiagoan; kasu horietan, kreditu osagarri hori soilik izango da eraginkorra, baldin eta kreditu horren erabilgarritasuna adierazita badago. Adierazpen hori egin beharko da diru-laguntza emateko ebazpena eman aurretik. Organo eskudunak baimendu beharko du kopuru-zabalkuntza hori.

Hirugarrena Azken Xedapena. — Indarrean jartzea

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Arautegi honetan zehaztutako eremu materialean egon arren aurreko arautegi baten arabera eman diren diru-laguntzak egongo dira beraiek eman zituen arautegiak xedatzen duenaren mende, harik eta iraungi arte.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru dekretu hau indarrean jarritakoan, indarrik gabe geratuko dira foru dekretu honetan xedatutakoaren aurkakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapenak.

Bilbon, 2019 apirilaren 9an.

Ekonomi eta Lurralde Garapena
Sustatzeko foru diputatua,
IMANOL PRADALES GIL

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ



I. ERANSKINA / ANEXO I

ZINPEKO AITORPENA / DECLARACIÓN RESPONSABLE

Izen-abizenak / Nombre y apellidos:	
NAN zk. / DNI:	
Kargua / Cargo:	
Sozietatearen izena / Razón Social:	
IFK zk. / CIF:	
Espedientea/k / Expediente/s:	

ADIERAZTEN DU:

- Zuk ordezkatzun duzun erakundeak ez duela inoiz jaso zehapenik sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta zigor edo administrazioaren arloan.
- Zuk ordezkatzun duzun erakundea ez da goela sartuta Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 12. artikulua ezartzen dituen egoeretakoa batean ere.
- Zuk ordezkatzun duzun erakundeak bete egin duela Artisanen Sustatzeko Programa arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretuaren 4 eta 14. artikuluetan ezarritakoa, Gizonezkoen eta emakumezkoen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen irizpideak ezartzeko konpromisoa bete delako, sexuaren arabera bazterkeria-eza sustatuz.

MANIFIESTA:

- Que la entidad que representa no ha sido sancionada, administrativa o penalmente, por incurrir en discriminación por razón de sexo.
- Que la entidad que representa no está incurso en ninguna de las circunstancias que establece el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.
- Que la entidad que representa ha cumplido con lo establecido los artículos 4 y 14 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se regula el Programa de Promoción de la Artesanía, en cuanto a que se ha cumplido con el compromiso de aplicación de los criterios de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de hombre y mujeres, promoviendo la no discriminación por razón de sexo.

.....n, ...(e)ko(a)(r)en ...(e)(a)n.

En, a ... de..... de ...

Sin. / Fdo.:



GASTUEN ZERRENDA SAILKATUA / RELACIÓN CLASIFICADA DE GASTOS

GASTUAREN KONTZEPtua / CONCEPTO DE GASTO
Zehaztu gastu-kontzeptuetariko bakoitzerako / Elaborarlo para cada uno de los conceptos de gasto
1. AUKERA / Opción 1

Fakturaren data Fecha factura	Hornitzailea / Faktura zk. Proveedor / N.º de factura				Faktura Factura		Proiektuari egotzita Imputado al proyecto		Ordainketa data Ordainketa data fecha pago
					Zerga-oinarria Bse. imponi.	Jasandako BEZA IVA soporta	Guztira Total (€)	%	
.....									
.....									
.....									
.....									
.....									
.....									
(Kopuruak eurotan) / (Cifras en euros)									
							Egotzitako Gastua GUZTIRA TOTAL Gasto Imputado		

